


Kultur jarduerak 1.508 milioi euroko Balio Erantsia sortu zuten Euskal AEn 2020an, BPGren % 2,1

Enpleguari dagokionez, kultur jarduerak 25.638 lanpostu bildu zituen lanaldi osoko baliokideetan, guztizkoaren % 2,8

Kultur jardueren **Balio Erantsi Gordina (BEG)** 1.508 milioi eurokoa izan zen 2020an Euskal AEn, hau da, urte horretako BPGren % 2,10, Eustatek lehen aldiz egindako Kulturaren Kontu Sateliteko datuen arabera. Gainerako sektoreetan bezala, pandemiaren ondorioek eta hura hedatzea saihesteko hartu ziren neurriek eragina izan zuten kulturaren, eta horrek agerian utzi zuen % 8,93ko atzerakada izan zela sektorearen BEGn, 2018arekin alderatuta. BPGri dagokionez, kultur sektorearen BEG ere murriztu egin zen 2020an, 2018ko % 2,15etik urte horretako % 2,10era igaro baitzen, eta horrek esan nahi du krisiaren ondorioek eragin handiagoa izan zutela kultur jardueretan, Euskal AEko ekonomia osoan baino.

Kultur jarduerak hainbat **sektore** hartzen dituzte barnean, beren izaeraren arabera: "Ondarea", "Artxiboak eta liburutegiak", "Liburuak eta prentsa", "Arte plastikoak", "Arte eszenikoak", "Ikus-entzunezkoak eta multimedia" eta "Diziplinartekoa". Horien guztien artean, ekonomikoki garrantzitsuenak, sortutako BEGri dagokionez, "Ikus-entzunezkoen eta multimedia" da, berez 425 milioi euroko ekarpena egin baitzuen 2020an, kulturako BEGren % 28,2; ondoren, "Liburuak eta prentsa", 409 milioirekin, hau da, % 27,1ekin, eta, hirugarrenik, "Arte plastikoak", 358 milioirekin eta % 23,7ko ekarpenarekin.

Euskal AEko kultura-jardueren balio erantsi gordina, sektoreka (%). 2020 (p)



(p) behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kulturaren kontu satelitea

Euskal AEko kulturaren BEGd-aren bilakaera eta egitura. Mila eurotan. 2016-2020

	2016 (p)	2018 (p)	2020 (p)	guztizkoaren gaineko %			Urteko aldakuntza-tasa (%)	
				2016 (p)	2018 (p)	2020 (p)	2018 (p) / 2016 (p)	2020 (p) / 2018 (p)
SEKTOREKA								
GUZTIZKO KULTURAKO BEG	1.655.851	1.655.849	1.508.002	100,0	100,0	100,0	0,0	-8,9
Ondarea	73.653	71.527	75.606	4,4	4,3	5,0	-2,9	5,7
Arxiboak eta liburutegiak	74.192	86.279	86.369	4,5	5,2	5,7	16,3	0,1
Liburuak eta prentsa	498.116	487.205	409.294	30,1	29,4	27,1	-2,2	-16,0
Arte plastikoak	339.100	357.351	358.001	20,5	21,6	23,7	5,4	0,2
Arte eszenikoak	212.762	192.392	139.669	12,8	11,6	9,3	-9,6	-27,4
Ikus-entzunezkoa eta multimedia	441.058	441.285	424.583	26,6	26,7	28,2	0,1	-3,8
Diziplinariak	16.970	19.810	14.480	1,0	1,2	1,0	16,7	-26,9
FASEEN ARABERA								
GUZTIZKO KULTURAKO BEG	1.655.851	1.655.849	1.508.002	100,0	100,0	100,0	0,0	-8,9
Nuklear-jarduerak, guztira	1.428.691	1.439.011	1.322.705	86,3	86,9	87,7	0,7	-8,1
Sorkuntza eta ekolzipena	910.503	931.123	866.379	63,7	64,7	65,5	2,3	-7,0
Fabrikazioa	174.369	164.536	124.692	12,2	11,4	9,4	-5,6	-24,2
Hedapena eta banaketa	192.971	186.132	170.101	13,5	12,9	12,9	-3,5	-8,6
Sustapena eta erregulazioa	16.970	19.810	14.480	1,2	1,4	1,1	16,7	-26,9
Hezkuntza	133.878	137.410	147.053	9,4	9,5	11,1	2,6	7,0
Osagarri-jarduerak, guztira	227.160	216.838	185.297	13,7	13,1	12,3	-4,5	-14,5
Fabrikazioa	13.024	10.093	7.500	5,7	4,7	4,0	-22,5	-25,7
Merkataritza eta konponketak	211.580	203.937	174.740	93,1	94,1	94,3	-3,6	-14,3
Besteak	2.556	2.808	3.057	1,1	1,3	1,6	9,9	8,9

(p) behinbehineko datuak

Data 2022ko Abenduaren 30a

Iturria: Eustat, Kulturaren kontu satelitea

Enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokide (**LOB**) gisa neurtuta, 2020an “Liburuak eta prentsa” sektorearen ekarpenek markatu zuten, 8.037 LOB lanposturekin, hau da, kultur sektoreei esleitutako enplegu guztiaren % 31,3; ondoren, “Arte eszenikoak”, 7.651 lanposturekin (% 29,8); hirugarren, “Ikus-entzunezkoen eta multimedia”, 6.232 lanposturekin (% 24,3).

Euskal AEko kultura-jardueren lanaldi osoko enplegu baliokidearen (LOB) bilakaera eta egitura. 2016-2020

	2016 (p)	2018 (p)	2020 (p)	guztizkoaren gaineko %			Urteko aldakuntza-tasa (%)	
				2016 (p)	2018 (p)	2020 (p)	2018 (p) / 2016 (p)	2020 (p) / 2018 (p)
SEKTOREKA								
Lan-postuak (LOB), guztira	28.760	29.107	25.638	100,0	100,0	100,0	1,2	-11,9
Ondarea	634	642	587	2,2	2,2	2,3	1,3	-8,6
Artxiboak eta liburutegiak	949	932	810	3,3	3,2	3,2	-1,8	-13,1
Liburuak eta prentsa	9.043	8.953	8.037	31,4	30,8	31,3	-1,0	-10,2
Arte plastikoak	8.100	8.388	7.651	28,2	28,8	29,8	3,6	-8,8
Arte eszenikoak	2.592	2.640	2.138	9,0	9,1	8,3	1,9	-19,0
Ikus-entzunezkoa eta multimedia	7.139	7.231	6.232	24,8	24,8	24,3	1,3	-13,8
Diziplinartekoa	303	321	183	1,1	1,1	0,7	5,9	-43,0
FASEEN ARABERA								
Lan-postuak (LOB), guztira	28.760	29.107	25.638	100,0	100,0	100,0	1,2	-11,9
Nuklear-jarduerak, guztira	25.071	25.385	22.442	87,2	87,2	87,5	1,3	-11,6
Sorkuntza eta ekoizpena	14.980	15.342	13.667	59,8	13,5	12,6	2,4	-10,9
Fabrikazioa	3.435	3.437	2.822	13,7	14,0	13,0	0,1	-17,9
Hedapena eta banaketa	3.689	3.549	2.923	14,7	1,3	0,8	-3,8	-17,6
Sustapena eta erregulazioa	303	321	183	1,2	10,8	12,7	5,9	-43,0
Hezkuntza	2.664	2.736	2.847	10,6	12,8	12,5	2,7	4,1
Osagarri-jarduerak, guztira	3.689	3.722	3.196	12,8	12,8	12,5	0,9	-14,1
Fabrikazioa	394	311	259	10,7	8,4	8,1	-21,1	-16,7
Merkataritza eta konponketak	3.238	3.352	2.878	87,8	90,1	90,1	3,5	-14,1
Besteak	57	59	59	1,5	1,6	1,8	3,5	0,0

(p)behinbehineko datuak

Data 2022ko Abenduaren 30a

Iturria: Eustat. Kulturaren kontu satelitea


Urte arteko datuei dagokienez, sektore guztiek, balio erantsiari zein enpleguari dagokienez, beherakada izan zuten 2020an, urte horretan izandako krisi sanitarioaren ondorioz.

Kultur ondasun eta zerbitzuen balio-katearen **faseei** dagokienez, honako hauek bereizten dira: alde batetik, **“Jarduera nuklearrak”**, besteren artean honako hauek: “Sorkuntza eta ekoizpena”, “Fabrikazioa”, “Zabalkundea eta banaketa”, “Sustapena eta erregulazioa” eta “Hezkuntza”. Bestetik, **“Jarduera osagarriak”** daude, “Fabrikazioa”, “Merkataritza eta konponketak” eta “Bestelako jarduerak”.

Jarduera nuklearrak ematen diote pisurik handiena kulturaren **BEGri**: % 87,7 2020an. Horien artean, garrantzitsuen 2020an **“Sorkuntza eta ekoizpena”** izan zen, artisten lana barne hartzen duena (adibidez, obra literarioen sorkuntza), baina baita kultur zerbitzuaren ekoizpena ere, zerbitzu hori sormen-lanarekio bereizetazina denean (adibidez, musika-kontzertu batean edo antzezlan baten antzezpenean). Fase horretan 866 milioi BEG izan ziren, % 57,5. Bigarrenik, **“Merkataritza eta konponketak”** sektorearekin lotutako jarduerak daude. Horien artean daude, besteak beste, audio- eta bideo-erreproduzitzailak merkaturatzeko jarduerak eta horien konponketa, 175 milioi eta kulturako BEGren % 11,6 ekarrita. **“Jarduera osagarriak”** dira kultur ondasun eta zerbitzuen erabilera eta gozamina errazten duten produktuak lortzeko aukera ematen dutenak (adibidez, musika-tresnen fabrikazioa). Jarduera horiek kultur sektoreko BEGren % 12,3 izan ziren 2020an, 185 milioi euro.


Kultur jardueri buruzko informazioa emateaz gain, Euskal AEko Kulturaren Kontu Sateliteak **jabetza intelektualarekin lotutako jardueri** buruzko datu osoak ere ematen ditu. Kategoria honek kultur jarduera batzuk baztertzen ditu —kultur ondarearen kudeaketarekin eta hezkuntzarekin, kultur sustapenarekin eta erregulazioarekin lotutakoak, esaterako—, baina publizitatearekin eta informatikarekin lotutako beste batzuk gehitzen ditu.

Euskal AEko kultura-jardueren eta jabetza intelektualarekin lotutako jardueren balio erantsi gordina. Milioi eurotan. 2020 (p)



Jabetza intelektualari lotutako jardueri lotutako **BEG**, oro har, kultur jarduerak zentzu hertsian sortzen dutena baino handiagoa da, eta pandemiak ere eragina izan zuen: 2020an 1.690 milioi eurokoa izan zen, 2018arekin alderatuta % 8,6ko atzerakada izan ondoren. BPGri dagokionez, jabetza intelektualari lotutako jarduerak % 2,35 izan ziren 2020an, bi urte lehenago baino 5 ehunen gutxiago ere.

Euskal AEko kultura-jardueren eta jabetza intelektualarekin lotutako jardueren balio erantsi gordina (BPGren %). 2020 (p)



Jabetza intelektualari lotutako jardueren **BEGri** egindako ekarpenik handiena, 2020an, “Jarduera erabat kulturalak” sektoreari egokitu zitzaion, 1.305 milioi euroekin, hau da, guztizkoaren % 77,2; 229 milioi euro, berriz, “Informatika” sektoreari lotutako jarduerengatik, eta 155 milioi euro (% 13,6), azkenik, “Publizitatea” sektoreari lotutakoengatik (% 9,2).

Euskal AEko jabetza intelektualari lotutako jardueren datu nagusiak. 2016-2020

	2016 (p)	2018 (p)	2020 (p)	gustizkoaren gaineko %			Urteko aldakuntza-tasa (%)	
				2016 (p)	2018 (p)	2020 (p)	2018 (p) / 2016 (p)	2020 (p) / 2018 (p)
SEKTOREKA								
BEG GUZTIRA (milaka euro)	1.824.283	1.847.938	1.689.933	100,0	100,0	100,0	1,3	-8,6
Hertsiki kulturalak diren jarduerak	1.465.340	1.462.967	1.305.335	80,3	79,2	77,2	-0,2	-10,8
Informatika	199.651	214.636	229.398	10,9	11,6	13,6	7,5	6,9
Publizitatea	159.292	170.335	155.200	8,7	9,2	9,2	6,9	-8,9
Lan-postuak (LOB), guztira	33.858	34.630	30.707	1,9	1,9	1,8	2,3	-11,3
Hertsiki kulturalak diren jarduerak	25.936	26.220	22.792	1,4	1,4	1,3	1,1	-13,1
Informatika	3.955	4.298	4.237	0,2	0,2	0,3	8,7	-1,4
Publizitatea	3.967	4.112	3.678	0,2	0,2	0,2	3,7	-10,6

(p)behinbehineko datuak

Data 2022ko Abenduaren 30a

Iturria: Eustat. Kulturaren kontu satelitea

Ohar metodologikoa:

Euskal AEko Kulturaren Kontu Satelitea (KKS) EUSTATEk egiten dituen gainerako kontu sateliteekin bat egiten duen eragiketa da. Kontu satelite bat eragiketa estatistiko bat da, ekonomiaren sektore baten errealitatea islatzen duena, Kontabilitate Nazionalaren esparru orokorrean erabiltzen diren balorazio-printzipio, -kategoria eta -irizpide berberak erabiliz. Jarduteko modu horrek sektorerako eta ekonomia osorako lortutako emaitzen arteko erabateko alderagarritasuna bermatzen du. Kulturaren Kontu Satelitea UNESCOk 2009ko Estatistika Kulturalen Esparruaren azken edizioan proposatzen duen kultur sektorearen mugaketan oinarritzen da, baita estatuko eta nazioarteko beste erreferentzia metodologiko batzuetan ere.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62